# Emakume langileen NOTIZIAK

**Número 6. Zenbakia** — **2009ko otsaila/martxoa**


## EDITORIALA

### Krisialdiak badu generorik

**Espainiar estatuan, lehen aldiz, emakumezkoak baino gehiago dira gizonezko langabeak. Datua ezagutzera eman zenetik hipotesi bakarra zabaldu da: *krisialdi honek gizonezkoak kaltetuko ditu emakumezkoak baino gehiago.***

**Begi bistakoa da, oraingoz, krisiak zein sektoretan ekarri dituen kaleratze eta lan erregulazio espedienteak: industria arloan, esaterako. Eta, jakina da, sektore horietan lanean dabiltzanak gizonezkoak direla, nagusiki. Baina krisialdiak generorik duen ala ez baloratzeko orduan ez da nahikoa gizon eta emakume langabetu kopurua alderatzea.**

**Gogoan izan behar da estualdia pasatzen ari diren edo pasatzeko beldur diren enpresek zein neurri hartu dituzten: azpikontratatutako zerbitzuekin amaitzea, alegia. Metalean gizonen presentzia dezente nabarmenagoa den bezala, azpikontratatutako enpresetan emakumeak dira nagusi. Eta hasi dira lehen eraginak nabaritzen.**

**Gertatzen dena da, emakume horiek galtzeko dutena beste sektore batzutakoek dutena baino gutxiago dela. Milaka emakume dira krisialdian daudenak aspalditik: soldata baxuak, iraupen laburreko kontratu zaborrak, lan jardun irregu larrak... Egoera honek, noski, ez die mesede egingo! Euren lan baldintza prekarioak are prekarioago bihurtzeko arriskuan daude.**

**Emakumeok antolatu eta borrokan jarraitu behar dugu. Inoiz baino beharrezkoagoa zaigu burua altxa eta aberastasunaren banaketan dagokigun zatia eskuratzea. Abian jarri dugun kanpainan erabat barneraturik eta eguneratuak dira aldarrikapenak.**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

EN EL MUNDO DEL TRABAJO

# LA PRECARIEDAD TIENE ROSTRO DE MUJER

Si existen características comunes al proceso de incorporación de la mujer en el mercado de trabajo, éstas se pueden concretar en discriminación y precariedad. Más allá de las grandilocuentes declaraciones habituales a las que nos tienen acostumbrados los políticos de turno en torno al Día Internacional de la Mujer Trabajadora, 8 de Marzo, la dura realidad de los centros de trabajo es bien distinta.




En el ámbito laboral, la mera definición de sector feminizado, hoy es sinónimo de precariedad. Los sectores de servicios, hostelería, limpieza y atención a personas dependientes, entre otros, son ámbitos en donde aflora la precariedad en su expresión más cruda.

La patronal pretende aprovecharse de las necesidades de las mujeres instaurando condiciones laborales indignas, en muchos casos. La temporalidad en la contratación, salarios insuficientes, jornadas reducidas obligadas, disponibilidad permanente, etc... son constantes en los distintos centros de trabajo.

**ESCASA VOLUNTAD.** Si tuviera voluntad real de atajar esta problemática, la administración debería actuar en consecuencia, más allá de discursos vacíos de contenido. La discriminación y precariedad en los centros de trabajo requiere compromisos explícitos y, lejos de adoptarlos, la propia administración cuando actúa como patronal lidera la precariedad y la discriminación.

**Emakumeok, batezbesteko, gizonezkoak baino %22 gutxiago kobratzen dugu, eta, gazteekin eta etorkinekin batera, sektorerik prekarioenetan egiten dugu lan**

Ante esta situación, las mujeres hemos demostrado que no cabe la resignación. Estamos demostrando que organizándonos y luchando es posible mejorar nuestras condiciones.

**LA LUCHA DA FRUTOS.** Especialmente los últimos años, las luchas desarrolladas por mujeres nos han mostrado el camino a seguir.

Los ejemplos de Sabeco, Ariznavarra, Faustino Orbegozo, Rehavital, Limpiezasy el Comercio son sólo un botón de muestra de todo lo que estamos dispuestas a hacer.



## Gure erabakien jabe izan nahi dugu, emakumeak eta langileak garelako

La patronal lo sabe y se resiste a dignificar nuestras condiciones laborales. De ahí que los conflictos protagonizados por mujeres estén siendo muy largos.

Pero hemos decidido seguir en la brecha, organizarnos y pelear. Y lo estamos consiguiendo.

## IRUDITAN / EN IMAGENES




**INDARKERIA SEXISTA SALATU. Azaroaren 25ean, kale bilkura egin genuen era guztietako indarkeria sexista salatu eta berarekin amaitzeko neurri eragingorrak exijitzeko. Bilbon egin genuen agerraldia ESK eta STEE-EILAS sindikatuekin batera, "Guztiok lanean indarkeria sexistaren aurka" lemapean. Bakoitzaren lan esparrutik hasita, jarrera eta eraso sexistak salatzeko konpromisoa erakutsi genuen. Emakumeok jasaten ditugun erasoekin amaitzeko gizartearen oinarri patriarkalak aldatu beharra ere azpimarratu genuen. Eta balore aldaketaren alde lanean jarraituko dugu gizarteko maila guztietan.**

# Hezkuntzan ere prekarietatea, roll eta balorazio sexisten aginduetara

Hego Euskal Herriko hezkuntza sisteman, askok kontrakoa uste badute ere, PREKARIETATEA existitzen da. Eta, hau kasualidadea!, arlo feminizatuenetan konzentratzen da hein handi batetan: soldata bajuenak, behin behinekotasun tasa altua, lan jardun altuenak, lektiboak barne (haur eta lehen hezkuntza kasu), eta, nola ez, Administrazioaren jarrera bortitzenak, negoziazio kolektiboari dagokionean.

Mendeetan zehar emakumeok dohainik etxean egin izan ditugun lanak ez dira baloratzen ezta ordaintzen ere, eta antzeko lanak egiten ditugunean eskoletan, ez dira aintzat hartzen, emakumeak soldata autonomoa behar ez duelakoan edo "kualifikazio eskaseko lanbideak" direlakoan. Gezur sexista bat da, balorazio sexita baten ondorioa.

Arazoa ez da soilik langileentzat, familientzat ere, emakumeontzat, gehienbat. Zeren, gobernuek uste baitute, urteetan dohainik egin ditugun lanak, jarraitu behar dugula egiten, eta horregatik ez dituzte nahiko plaza, eta dohako plazak sortzen 0-3 urte bitarteko umeentzat, edo jantokiak eta orduz kanpoko ekintzak behar bezela ornitzen, adibidez.

**BALORE BAZTERTZAILEAK.** Honela jokatzean, gobernuak balore oso arriskutsuak ari dira irakasten, balore baztertzaileak, emakumea pobreziara eta bigarren maila batetara kondenatzen dutenak.

Horrela izanda, argi dago, irakaskuntzan ere, emakumeok sindikalki antolatu eta borrokatu beharra dugula, afiliatu, informatu eta tinko erantzun.

Martxoak 8an, propaganda politiko gutxiago, eta lan baldintza eta gizarte zerbitzu gehiago emakumeontzat, baita Hezkuntzan ere!.

# NUESTRA SALUD TAMBIÉN CUENTA

Cuando hablamos de salud laboral nos referimos al riesgo que tenemos a sufrir alguna lesión derivada del trabajo.

Hasta ahora, la prevención y la salud laboral es investigada y aplicada sin tener en cuenta un factor tan importante como la perspectiva de género.

Hay estudios que concluyen que las mujeres, en determinados puestos de trabajo, tienen más problemas de salud que los hombres que realizan esa misma tarea.

**LAS MUJERES, MÁS ENFERMEDADES; LOS HOMBRES, MÁS ACCIDENTES.** Un estudio publicado por el Instituto Nacional de Estadística (INE) dice que la tasa de accidentalidad en los hombres es mayor que entre las mujeres. En el caso de enfermedades, en cambio, las tornas se invierten, y son las mujeres quienes más enfermedades sufren.

Podemos encontrar mil estudios y otras tantas conclusiones, pero sin analizar el problema de fondo: la repercusión que la doble jornada tiene en las personas que la realizan, mayoritariamente mujeres.

Los valores y el sistema socioeconómico patriarcal conllevan un reparto de tareas desigual e injusto para hombres y mujeres. Así pues, las mujeres nos vemos obligadas a compatibilizar el trabajo fuera y dentro del hogar a costa de nuestra propia salud y vida.

El mercado laboral también juega en nuestra contra. Nuestra presencia en el mismo se encuentra, principalmente, en los sectores de enseñanza, servicios y atención sanitaria. Son sectores diversos entre si; donde los riesgos laborales en cada sector, puesto y categoria varían

**Lanaldi bikoitzak osasunean eta segurtasunean arazo ugari eragiten ditu; emakumeak gara egoera hori gehien pairatzen dugunak**



notablemente. No obstante, todos tienen algo en común: son sectores precarios donde vagamente se toman medidas de prevención ante accidentes o enfermedades laborales. En consecuencia, la salud laboral de las mujeres se olvida con frecuencia.

**SALUD LABORAL CON PERSPECTIVA DE GÉNERO.** Desde ELA debemos trabajar para que la perspectiva de género se introduzca y se aplique en la normativa de salud laboral, abordando de forma integral los problemas que afectan específicamente a las mujeres.

**ELAn gogor egingo dugu lan segurtasunaren alorrean emakumeei bereziki eragiten dizkieten gaiak jorratu daitezen**

**Pili Moreno, Foro Mujeres ELA**

## GORA / BEHERA



**El sector de ayuda a domicilio de Araba ha alcanzado un preacuerdo digno gracias a la lucha y a las movilizaciones realizadas en los fríos meses de invierno. Hemos conseguido regular y aumentar las horas fijas de trabajo, disminuir las horas de disponibilidad -de 62 a 20 horas semanales- y una subida salarial del 4,7% hasta el año 2010. Además de las mejoras del convenio, hemos logrado organizar un sector hasta ahora disperso y hacer visible el trabajo social que realizan las mujeres.**



**Erakunde publikoek bultzatutako genero politikak desitxuratuak izateaz gain, horiei buruzko informazio eta gardentasun falta izugarria da. EAEko Emakunde eta Nafarroako Foru Gobernuko Berdintasunaren aldeko institutuek genero bereizkeriaren aurkako aldarria publikoki egiten duten arren, aurrera eramandako proiektuek edukirik gabekoak izaten jarraitzen dute. "Euren berdintasuna" gatazka laboralen ateetan geratzen da. Zoritxarrez, propaganda asko eta berdintasunaren aldeko politika gutxi!**

# Emakume langileen NOTIZIAK

**Número 6. Zenbakia** | **Febrero/marzo 2009**


# Antolatu eta borrokatzea, irtenbidea




Emakumeoi kosta zitzaigun lan merkatuan geure tokia egitea, eta oraindik ere segitzen dugu borroka horretan. Egungo erronka nagusia baina, dagozkigun baldintza duinak lortzeko bidea garatzea da. Hau da, antolatzea eta borrokatzea. Azken aldian ugaldu egin dira bide horretan emandako gatazkak. ELAtik gai izan gara emakumeok nagusi garen lanbide eta lantokietan indarrak batzeko, gure eskubideak defendatuz eta dagokiguna exijituz.

Borroka horretan ezinbesteko tresna da negoziazio koletikoa. Sektore, lurralde edo enpresa bakoitzean negoziatutako hitzarmenetan emakumeon presentzia markatu eta lehentasunak jasotzea beharrezkoa da.

Prekarietatetik irteteko eman beharreko pausua da duintasunezko hitzarmenak lortzea. Hitzarmen duinak lortuz izango dugu gizarteko alor guztietan libre izateko giltza. Horregatik, orain ditugun gatazkak eredugarri dira emakumeon eskubideak bermatzeko bidean.

**SABECO RENTERIA ›** Sabecoko langileak greban hasi ziren urriaren 13an lan baldintza duinak aldarrikatzeko. Langile hauei orain dela hiru urtetik estatu mailako enpresa lan hitzarmena aplikatzen zaie. Beraien bataz besteko hileko soldata 730 eurokoa da. Greba honetan zera eskatzen dugu: estatu hitzarmenaren ordez, Gipuzkoako elikadura hitzarmen kolektiboa aplikatzea. Hitzarmen honek gaur egun dituzten lan baldintzak hobetzen ditu.




**ZORNOTZA, ERRENTERI ETA ZARAUTZEKO UDALEETXETAKO GARBIKUNTZAKO LANGILEAK ›** Langile hauek azpikontrata batetan egiten dute lan. Horrek lan baldintza prekarioak suposatzen ditu. Administrazioak bultzatzen duen prekarietatea, hain zuzen. Hori dela eta, greban hasi dira beraien baldintzak hobetzeko, prekarietatetik irtetzeko.

Zornotzan grebak eta borrokak bere emaitza eman dute: hitzarmen bat lortu dugu, non lan baldintzak hobetzen diren; eta beste udaletxeetan bidean gaude.



**ARIZNABARRA RESIDENTZIA ›** Ariznabarrako egoitzako langileak iazko otsailaren 17an greban hasi ziren. Gaur egun indarrean duten greba, beraien bigarren greba luzea da. Aurreko grebari esker, lan baldintzak hobetzea lortu zuten, hala ere, ez zuten Gizarte Ongizaterako Instituto Foralarekin ekiparazioa lortu. Orain ekiparazioa eskatzen da, hau da, lan baldintzak duintzea.

**REHAVITAL RESIDENTZIA ›** Egoitza honetan bi hitzarmen aplikatzen dira. Bat, kontratu zuzena duten langileentzat, eta, beste bat, azpikontratatutako langileentzat. Grebaren helburua berdintasuna lortzea da.

**GIPUZKOAKO EGOITZEN HITZARMEN PROBINTZIALA ›** Gatazka sektoriala da. Sektore honetan bi aldarrikapen nagusi daude. Bat, subrogazioa lortu, hau da, enpresa aldaketak lan baldintzetan ez eragitea; eta bi, Gipuzkoako Aldundiko Hitzarmenarekin ekiparazioa lortzea.

Adibideok argi adierazten digute bide bakarra zein den: **ANTOLATU ETA BORROKATU**.

## abisuak avisos

**▲ 6 DE MARZO ›** Acto confederal de reivindicación del Día Internacional de la Mujer Trabajadora. La militancia del sindicato nos reuniremos a las 10.00 horas de la mañana en el Teatro Ayala, de Bilbao, para denunciar la discriminación que sufrimos las mujeres y reivindicar que la única manera de hacerle frente es organizarnos y luchar por nuestros derechos. A continuación, nos manifestaremos por las calles de Bilbao.

**▲ 8 DE MARZO ›** Día Internacional de la Mujer Trabajadora. Como todos los años habrá manifestaciones en todos los territorios para exigir que se ponga fin a la discriminación que padecemos las mujeres, tanto en el ámbito sociolaboral como familiar. Desde ELA nos sumamos a los actos reivindicativos que en este sentido se lleven a cabo.

**▲ 28 DE ABRIL ›** Día Internacional de la Seguridad y Salud en el Trabajo. Un año más saldremos a la calle a denunciar que la precariedad es la causa principal de la siniestralidad laboral y que, lamentablemente, la seguridad y salud laboral, en la práctica diaria, no es un tema prioritario ni para la administración ni para la patronal.

**▲ 1 DE MAYO ›** Día Internacional del Trabajador y Trabajadora. Las y los militantes de ELA tomaremos las calles de Bilbao para reivindicar nuestros derechos como clase trabajadora y dejar claro que ni los salarios ni el empleo son los culpables de la situación actual, y que lo que hace falta son otras políticas. Más que nunca es necesaria la lucha sindical para propiciar un cambio de la situación actual.

**▲ 5 DE JUNIO ›** Acto de cierre en Bilbo de la campaña "Aberastasuna banatu: + salarios, + gasto social, + justicia fiscal". Este día llenaremos las calles de Bilbao con nuestra militancia en el acto que pondrá fin a la campaña que estamos desarrollando estos meses. No podemos aceptar que seamos la clase trabajadora quien pague la situación creada por la banca y la patronal, con la complicidad de los gobiernos.